

## MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleek irabazi dute 2016ko Euspot lehiaketako sari nagusiak

2016/05/12

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek irabazi dute 2016ko Euspot euskarazko iragarkien lehiaketako sari nagusiak. Hala, atzo, hilak 12, Aretxabaletako Arkupe aretoan egindako sari banaketan, MUko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 2. mailako Patxi Irigoyen, Kike Otegi, Ibai Zabala eta Martxel Zubia ikasleek jaso zuten spot onenaren saria. Unibertsitateko ikasleek egindako spotik onena, bestalde, irabazi zuten gradu bereko Joseba Fuentes, Saioa Murura, Iratz Urkizu eta Josu Odriozola ikasleek. Anjel Alkain aktoreak aurkeztu zuen sari banaketa ekitaldia.

Ikusleek bidalitako 2.000 boto baino gehiagotik, publikoaren saria jaso duen lanak jaso ditu 212 boto. Irabazleak ere MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleak dira, hain zuzen ere, Ikus-entzunezko Komunikazio graduko 2. mailako honakoak: Alaine Aranburu, Eider Ballina, Anne Baskaran eta Imanol Eppherre.

Gaztetxoaren saria, azkenik, ex aequo geratu da, bi taldek lortu dutelako epaimahaikideen botu berdinak. Lehenengo taldeko parte-hartzaileak dira Eider Pozo, Marina Mulas, Maider Uribeetxebarria, Nerea Madinabeitia eta Leire Ancin. Bigarren taldeako kideak, aldiz, Danel Teran Fernandez eta Iker Plazaola Acosta.

Bosgarren edizio honetan 34 spot aurkeztu dira. Aurtengo spoten erronka izan da turismoa erakartzea Gipuzkoako barnekaldara. Euspot lehiaketa antolatzen dute Aretxabaletako Udalak, Arteman Komunikazioak eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAk Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.


Sari banaketaren argazki bilduma.

### Ian sarituak eta irabazleen izenak

**Sari nagusia. Spotik onena (1.000 euro).** Egileak: Patxi Irigoyen, Kike Otegi, Ibai Zabala eta Martxel Zubia.



2016 edizioko irabazleak.



-----  
**MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleen spotik onena (500 euro).** Egileak: Joseba Fuentes Etxegoien, Saioa Murura Caballero, Iratz Urkizu Gastañazpi eta Josu Odriozola Epelde.



-----  
**Publikoaren saria (500 euro).** Egileak: Alaine Aranburu, Eider Ballina, Anne Baskaran eta Imanol Eppherre.



-----  
**Gazteen saria (14-18 urte) 250 euro.** Saria ex aequo. Bi taldek lortu dute puntu berdinak.

**1. taldea.** Egileak: Eider Pozo, Marina Mulas, Maider Uribeetxebarria, Nerea Madinabeitia eta Leire Ancin.

-----  
**2. taldea.** Egileak: Danel Teran Fernandez eta Iker Plazaola Acosta.

